

Gaia:

**(...) DIPUTATUAK ESLEITUTAKO KONTRATUEN INGURUAN AURKEZTUTAKO
KEXA BATI BURUZKO EBAZPENEA**

I.- KONTSULTA

1.- 2024ko urtarrilaren 12an kexa bat jaso zen salaketa anonimoen kanalaren bidez, (...) foru diputatuak "atzamarrez" kontratuak esleitu zituelakoan.

Idazkian adierazten denez, diputatuak hainbat ekitalditarako kontratuak esleitzen dizkio (...) aholkularitza-entresari; Aholkularitza-entresa hori (...)rena da, gaur egun (...)ko zuzendaria dena eta diputatuaren alderdi berean afiliatuta dagoena. Baita beste entresa batzuei ere esleitzen die, azken horrek kargu publikoa eskuratu zuenetik, herri-administrazioarekin kontratatzea eragozten diotenetik.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango

duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen arduraren izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Gai honetan, (...)foru diputatuak kontratuak esleitzean irregulartasunak egon daitezkeela salatzen da, ustez enpresaren jabearekin duen kideatasun politikoagatik.

Kexa hirugarren baten gainekoa denez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, otsailaren 19an (...) foru diputatuari helarazi zitzaion jasotako kexa, informazioa emateko eta egoki irizitako gogoetak adierazi eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko. Ildo horretatik, otsailaren 19an bertan idazki bat bidali zuen bere oharpenekin.

2.- Aurkeztutako idazkian diputatuari leporatzen zaio 2022-2023an kontratuak esleitzea hainbat ekitaldi eta hitzalditarako (...) enpresari. Aholkularitza-enpresa horren egoitza Valentzian dago, eta (...) andrea da jabea, gaur egun (...)ko zuzendaria ere. Gainera, adierazten da pertsona hori diputatuaren (...) kidea dela. Gaineratu du hainbat ekitaldi esleitu dizkiola, hala nola (...).

Idazkiak kontratu horien esleipen zalantzarria planteatzen du, baita aurtengo ekitaldi batzuk beste enpresa bati ustez kontratatzea ere, kargu publiko gisa jada ezin baitzuen zuzenean administrazio publikoarekin kontratatu.

Esleitutako kontratuen datuak eta azaldutako gertakarien argitalpenak erantsi dira.

3.- Foru diputatuak alegazio gisa bidalitako idazkian argitzen da lehenik eta behin ez dela jabea kontratatzen, baizik eta enpresa bera, (...) arloan ospe handia duen aholkularitza, hain zuzen ere bere espezialitateagatik, (...) auditoretzetarako edo (...) arloko prestakuntzarako kontratatu dena.

Adierazi du kontratu guztiak (...) (...)ko zuzendari izendatu aurretik egin direla, baina ohartarazi du bere pertsonaren bateraezintasun-arazoak kargua betetzen duen erakunde publikoarekin ebatzi beharko lituzkeela, eta ez foru Aldundiarekin.

Diputatuak adierazi du kontratu guztiak txikiak direla, guztiak helburu ezberdin batekin, eta departamentuko Idazkaritza Teknikoak ez duela inolako eragozpenik jarri. Gaineratu du ez dela ohikoa bere departamentuan 3 aurrekontu eskatzea kontratu txikiak direnean; izan ere, ematen duen datu bakarra ekonomikoa da, eta hori ez da nahikoa kontratuaren egokitasuna zehazteko.

Bestalde, adierazi du duela urte batzuetatik hona kontratu batzuk errepikariak direla kontratatzen denaren berezitasunagatik, eta, beraz, (...) Aholkularitzarekin jarraitutako praktika ez dela batere bereizten gainerako kasu errekurrenteetatik. Ohartarazi duenez, hornitzaileen ideologiari edo erlijio-sinesmenei buruz ez da inolaz ere galdetzen, eta hori diskriminazio-arrazoia izan liteke. Aztertzen ari garen gaian, ordea, enpresaren jabearen ideologia ezaguna da, hori delarik ezberdintasun bakarra.

Azkenik, akusazioaren larritasunagatik kexu da, eta, aldi berean, akusazio hori egiteko arrazoiak justifikatzen dituen dokumentaziorik eza adierazi du, salatzaileak fede txarrez eta foru diputatua gutxiesteko asmo hutsez egin dela argudiatuz.

4.- Aztertzen ari garen gaian zalantzan jartzen da (...) enpresa hainbat ekitaldi eta hitzalditarako egindako kontratazioa, besteak beste, (...)rako. Izan ere, bertako zuzendaria foru diputatuaren alderdikide politikoa da, eta horregatik jartzen da zalantzan haren kontratazioa.

Lehenik eta behin, adierazi behar da ospe handiko enpresa dela (...)en arloan, eta lehenago ere kontratatu izan dela, hain zuzen ere arlo horretan duen eskarmentuagatik. Izan ere, foru diputatuak berak aitortzen duenez, (...)ren (...) auditoretza egin zuen, eta emaitzak kontuan hartu dira (...) hobetzeko.

Enpresa horren kontratazioa kontratu txikiaren figuraren bidez egin da. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, honako hau adierazten du honen inguruan:

118. artikulua. Kontratazio-espeditentea kontratu txikietan

1. Kontratu txikitzat joko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, 229. artikuluan estatuaren esparruan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruz xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Kontratu txikietan, espedientea izapidetzeko, kontratazio-organoak txosten bat egin beharko du, kontratuaren beharra arrazoituta eta kontratuaren xedea aldatzen ari ez dela justifikatzeko, aurreko paragrafoan deskribatutako atalaseak aplikatzea saihesteko.

3. Era berean, gastua onartu beharko da eta dagokion faktura erantsi beharko zaio. Faktura horrek lege hau garatzeko arauetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

(...)

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

63. artikulua. Kontratatzailearen profila

(...)

4. Kontratu txikiei buruzko informazioa gutxienez hiru hilean behin argitaratu beharko da. Kontratu mota horretarako argitaratu beharreko informazioa, gutxienez, haren xedea, iraupena, esleipenaren zenbatekoa (Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne) eta esleipendunaren nortasuna izango dira, eta kontratuak esleipendunaren nortasunaren arabera antolatuko dira.

(...)

Beraz, besteak beste, 15.000 eurotik beherako zerbitzuak kontratatzeke aurreikusitako figura da. Zerbitzu horiek kontratatzeke beharra eta modalitate horrek ahalbidetzen duen muga ekonomikoa ez gainditzeko kontratuaren xedea ez aldatzea justifikatzen duen txosten batekin batera aurkeztu behar dira.

Kontratazio-aukera horrek kontratazio-prozesua arintzea dakar, ez baita beharrezkoa kontratazio-espediente oso bat hastea, eta ohiko faseetako batzuk ezabatu egiten dira, hain zuzen ere, prozesua arintzeko eta obra egin ahal izateko, ondasunak eskuratzeko edo zerbitzua arin izateko eta premia lehenbailehen estaltzeko.

Hala ere, modu arduratsuan eta benetako premia bati erantzuteko egiten dela bermatzeko, beharrezkoa da, hain zuzen ere, kontratazioaren beharra eta xedea bermatzen dituen justifikazio-txosten tekniko bat aurkeztea

Premisa hori guztiz bat dator foru Kontratazio Publikoari buruzko Kodean ezarritakoarekin; izan ere, bere zioen azalpenean adierazten du “benetan garrantzitsua eta oinarritzkoa dena, eta kontratazio espediente bat hasteari zentzua ematen diona, hain zuzen ere, erosketaren edo zerbitzuaren benetako premia egokiro zehaztea baita eta, ildo horretatik, benetan horren premia badagoen eta nolako inguruabarrak dauden egiaztatzeke sistema inplementatzea eta premia ebaluatzea: hori da aztertu beharreko lehenengo puntua diru publikoaren erabilera eraginkorra bermatzeko. Ez du ezertarako balio lehiarako eskubidearen ikuspuntutik edo gardentasunaren edo ingurumenarekiko errespetuaren ikuspuntutik kontratazio espediente guztiz garbi bat izateak, baldin eta horren premiarik ez badago, edo gutxienez horren tamaina egokia ez bada”.

Horregatik, kontratazio-prozedurek gidatu behar dituzten printzipioen artean honako hau ezartzen du:

- a) *Eraginkortasun printzipioa gastu publikoan. **Aldez aurretik kontratazio premiaren neurri egokia zehaztea eskatzen da** diru publikoaren erabilera okerra saihestearren eta kontratua benetako premia asetzeko egokia dela bermatzearren. Halako prozesu guztietan eskatzen diren kontratazio txostenak gidatuko ditu printzipio honek.*

(...)

Hala ere, modu arduratsuan egiten dela eta benetako premia bati erantzuteko bermatzeko, beharrezkoa da, hain zuzen ere, kontratazioaren beharra eta xedea bermatzen dituen justifikazio-txosten tekniko bat aurkeztea.

Aztergai dugun gaiari dagokionez, enpresak duen ospe aitortuak, kontratatua izan den eremuaren ezagutza espezifikuari dagokionez, egingo den lanaren kalitatea bermatzen du, a priori. Eta kontuan hartzen bada lehenago ere Departamentuarekin lankidetzan aritu dela eta, beraz, Departamentuaren aurretiazko lanen eta behar espezifikoen berri baduela, baliabide publikoen optimizazio, efizientzia eta inbertsio egokirako modutzat ere har daiteke, goi-kargudunei buruzko Kodean jasotako ideia dena:

3.7 *Eragimena*

- a) *Foru kargu publikoek eragimenez kudeatuko dituzte **baliabide publikoak**, horiek inola ere xahutu gabe, eta **eragimenez horiek optimizatuz**.*

(...)

Beraz, Legeak aurreikusitako jardunbidea da, eta baliabide publikoak eraginkortasunez erabiltzera bideratuta dagoela dirudi.

4.- Bestalde, ezin dugu ahaztu kontratazio publikoa jardunbide txarren eta eraginkortasunik ezaren aurrean ahulen dagoen administrazio publikoen jardueraren eremua dela. Hain zuzen ere, prozeduraren faseek duten kalteberatasunagatik eta irregulartasunek arlo horretan aurrekontu publikoan eta herritarrek kudeaketa publikoari buruz duten pertzepzioan duten inpaktu publikoagatik, tradizioz araututa egon da, bai esatutko araudiagatik bai nazioartekoagaik ere. Horregatik, arau-esparru zabala du, gastu publikoaren gardentasuna, lehia eta efizientzia bermatzeko, kontratazio publikoan kontuan hartu beharreko printzipioak eta prozedurak arautuz.

Baina jakina denez, legeak *per se* ez dira betetzen, eta testuinguru horretan egokitzen dira autoerregulazio-kodeak, hala nola EZS osatzen duten kodeak, ondorio negatiboak minimizatu ahal izateko mekanismoak dituzten prebentzio-sistemak ezartzen dituztenak.

Ildo horretan, EZSk jokabide- eta jarduera-balio, -printzipio eta -arau desberdinak ezartzen ditu, zuzentasuna, zintzotasuna eta interesik eza, objektibotasuna edo kontratazio-prozeduren gardentasuna bermatzeko, adibidez. Eta, etengabeko hobekuntza gauzatuz, beharrezkoa da jokabide horiek indartzea, aztertzen ari garen gaia bezalako lege-egoerek estandar etiko eta kalitate-estandar gorenak ere bete ditzaten, gardentasuna hobetzeko, bidezko lehia bultzatzeko, zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko eta jardunbide onenak sustatzeko. Horrek, aldi berean, konfiantza publikoa eta erakundeen ospea indartzea ekarriko du.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2024ko martxoaren 19an

EBAZPENA

Lehenengoa. - Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoa kontuan hartuta, eta kontratazio-prozedurak gidatu behar dituzten balioak eta printzipioak indartzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta bere sektore publikoko erakundeei honako neurri orokor hauek hartzea gomendatzen diegu:

- 1) **Langileak gaitzea eta prestatzea.** Kontratazio-prozesuaren faseetan inplikaturako langileen etengabeko profesionalizazioak kontratazioaren eraginkortasuna hobetzen du. Alde horretatik, zuzentasun-sistema ezagutzeak lagunduko die kontratazio publikoan parte hartzen duten langileei funtsezko balio eta printzipio etikoak ulertzen eta kontratazio publikoaren testuinguruan nola aplikatzen diren ulertzen. Horrela, zuzentasun-arazoak errekonozitu ahal izango dituzte sortzen direnean, eta egoera behar bezala kudeatu ahal izateko gaitasun nahikoak izango dituzte.

2) Kontratazio-prozesuetan **arrisku etikoen aldizkako ebaluazioak egitea**, identifikatu ahal izateko eta beharrezko jarduera- eta prebentzio-neurriak hartu ahal izateko, eta eraginkorrak ez badira edo arrisku-egoera berriak antzematen badira egokitu ahal izateko. Identifikatutako arrisku bakoitzerako, neurrien eraginkortasuna neurtuko duten jarduera-adierazleak ezarri beharko dira.

3) Kontratazio-prozesuan **gardentasuna eta informaziorako sarbidea bermatzea**. Prozeduraren garrantziko informazio guztia eskuratu ahal izango da, hau da, pleguak, hautaketa-irizpideak, balorazioen emaitzak, lizitazioan parte hartzen duten erakundeak eta esleipendunak, eta kontratuaren betearazpenaren jarraipen-txostenak.

4) Ondasunak eta zerbitzuak modu justu, lehiakor eta etikoan eskuratzea bermatuko duen **kontratazio-prozedura sendoa** izatea. Horretarako, beharrezkoa izango da plangintza xehatu bat izatea, honako hauek bilduko dituenak: beharren identifikazioa, eskakizunen definizioa, kostuen zenbatespena eta prozedura egokien zehaztapena, baldintzak argi, modu irisgarri eta gardenean ezarriko dituenak, ebaluazio inpartzialak egingo dituenak, hornitzailea hautatzeko aurrez definitutako irizpideak ezarriko dituenak eta kontratua betetzen dela zorrotz jarraituko duena, adostutako baldintzak eta baldintzak betetzen direla bermatzeko.

5) **Tresna teknologiko** egokiak erabiltzea kontratazio-prozesuaren zenbait alderdi arintzeko eta automatizatzen, hala nola deialdiak argitaratzea, eskaintzak jasotzea eta proposamenak ebaluatzea.

6) **Gainbegiratze- eta kontrol-mekanismo** eraginkorrak ezartzea, irregulartasun etikoak prebenitzeko, batez ere objektibotasunik edo interesik eza.

7) **Interes-gatazken kudeaketa** egokia egitea. Horretarako, ezinbestekoa izango da, prebentzio-jarraibide egokiak ezartzeaz gain, prozeduran sor daitezkeen interes-gatazkek goiz detektatzeko eta horiek behar bezala kudeatzeko jarraibideak ezartzeko mekanismo bat izatea.

Bigarrena. - Kontratu txikiak kontratatzen prozedurak objektiboak, eraginkorrak eta bidezkoak direla bermatzeko, eta gardentasuna, lehia eta baliabide publikoen erabilera egokia bermatzeko, honako neurri espezifiko hauek hartzea gomendatzen dugu:

- 1) Kontratu txikiak esleitzeko **arau eta irizpide argi** eta gardenak ezartzea, berriazko atalaseak eta horiek gauzatzeko prozesu zehatzak barne.
- 2) Kontratu txikien esleipena **justifikatzeko txostenak** elementu objektiboetan eta txosten tekniko eskudunetan oinarrituta daudela bermatzea, aukeratutako prozeduraren modalitatea eta hartutako erabakia bermatzeko.
- 3) **Hornitzaileen arteko lehia sustatzea**, eskuragarri dauden kontratu txikiak zabal eta garden zabalduz, hornitzaile kopuru handi batek lizitazio-prozesuan parte har dezan ahalbidetuz.
- 4) Kontratu txikietarako **kontratazio-prozedura sinplifikatuak** diseinatzea, prozesua mantsotu dezaketen alferrikako izapideak eta gehiegizko burokrazia saihestuz.
- 5) Kontratu txikietan hornitzaileak hautatzeko **ebaluazio-irizpide** objektiboak eta argiak ezartzea, hala nola prezioa, kalitatea, entrega-epeak, gaitasun teknikoa, esperientzia eta abar.
- 6) Kontratazio-prozesu txikiaren etapa guztietan **gardentasuna** bermatzea, deialdia argitaratzen denetik azken esleipenera arte, informazio garrantzitsua jendeak eskura dezan.

Irene Berasaluze Lazkano
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria